

Sagarrondotik... bosgarren urtez sagardo z blai!

*Martxoaren 16an irekiko ditu ateak
Sagarrondotik jaialdiak.*



Xabier Mari Mariz

Bost urte beteko ditu aurtan Sagarrondotik jaialdiak.

*Herriak eta
herriarentzat
marraztutako
proiektua da,
sagardoa bera
bezalaxe*

**Tradizioa. Hitz ederra da. Sol-
nu sarkorra dauka, sagardoa-
ren usaina bezala. Gaur egun
asko dira sagardoaren usainak
tentatuta sagardotegira buel-
ta egiten dutenak. Horrek
badu sagardoaren kulturatik,
baina hori baino gehiago da
sagardoaren kultura, moda
bat baino gehiago da.**

Herri honen historiaren orrialde
asko idatzi dira mahai baten buel-
tan zintzurak sagardo bustita.
Asko hitz egin dute euskaraz sa-
gardo blaitutako mingainek,
asko abestu sagardo poztutako
eztariek.

Badago zer ikasia solasaldi
haietatik, eta hori helburu hartuta
hasi zen duela bost urte Sagarron-
dotik proiektua. Herriak eta he-
rriarentzat marraztutako proiektu-
a da, sagardoa bera bezalaxe. Eta
herriak aipatzen hasita, sagardo-
aren lurraldean kokatu behar, Asti-
garraga, Hernani, Urnieta eta
Usurbil baitira edari maite honen
sehaska. Herri hauek badute el-
karlanean aritzeko aitzakia majoa,

bai sagardo kontuetan eta bai bes-
telako kultur arloetan ere. Hori ere
izan du kontuan Sagarrondotik ize-
neko abentura honek.

Eta herriak mundura; ari eta
ari, urte hauetan Euskal Herriak
kanpoko bisitariak erakartzea ere
lortu baitute; ez da gure herria he-
men eta han ezagutarazteko bide
txarra.

Bost urteko ibilbidearen ba-
lantzea eginda, asmatu delako
sentsazioa badute.

Belaunaldi berrien begietara
agertu nahi zuten sagardoaren kul-
tura, eta begi horientzako tentaga-
rri egiten saiatu dira Sagarrondotik
jaialdia. Eta belaunaldi berriek
ederki erantzun dute, bai gau par-
teko musika emanaldietan, bai egu-
nez egindako ekintzetan ere. Ez
ahazteko modukoa izan da aurreko
urteetan hainbeste gazte bildu di-
tuen herri-kirolen desafioa. Eta elur
eta guzti Euskal Herriko txoko
urrunenetik kontzertuetara etorri-
tako gazteen irudiak ere luze iraun-
go du proiektu honen memorian.

Gordetzeko irudi asko daude
dagoeneko Sagarrondotik proiektu-
aren tiraderetan, eta aurrerant-
zean sortuko diren bizipen ber-
rientzako tiradera ugari hutsik
arraiuan.

Bost urte beteko ditu aurtan
Sagarrondotik jaialdiak. Agian ez
dira nahikoa izango tradizioa sor-
tzeke, baina bertan utzi dituzte
gure ilusio eta lanik onenak.

Martxoaren 16an irekiko ditu
ateak Sagarrondotik jaialdiak, az-
ken urteetan jende ugari erakarri
duen musika-jaialdiarekin hain zu-
zen. Bosgarren urtea izanik, aha-
legin berezia egin dugu urteurren
ospakizun gogoangarria izan da-
din. Hona hemen, besteak beste,
oraingoz martxoaren 16an eta 17an
izango diren taldeen artean aurre-
ra ditzakegun gonbidatuak: Julie-
ta Venegas mexikarra, Raimundo
Amador + Maneta de Kamioneta,
Kataluniatik datozen Obrint Pass
taldeko kideak eta Zea Mays.

Ostiral eta larunbateko musi-
ka-jaialdiaren ondoren, igandean
Urnieta joango da aurtengoan
ere Sagarrondotik. Buruntzaldeko
sagardoaren festa egingo da bertan,
eta bertaratzen direnek ezarriak
sagarraren salda bustitzeko au-
kera izango dute, beraz. Baita in-
guruko artisauen produktuak bil-

duko dituen azoka eta jada ohitu-
ra bihurtzen ari den zekor-er-
teaz gozatzeko aukera ere. Egun
berean, ospetsu bilakatu den, eta
laugarren edizioa beteko duen, he-
rriarte Herri Kirol lehia izango
da; Astigarraga, Urnieta, Usurbil
eta Hernaniko koadrilen arteko
lehia, urtetik urtera geroz eta jen-
de gehiagoren parte-hartzea eta
ikusmira lortu duen egitasmoa,
hain zuzen.

Ez da faltako emanaldi-sorta
osatu baten eskaintza sagardo-
aren jaialdi nagusi honetan, ez eta
jairako gogorik edo sagardoaz go-
zatzeko gogorik ere; finean, geu-
re kulturaz zipriztintzeko gogorik.
Txotx-irekiera eginda, denboral-
dia hasirik, egutegiaren bueltan
zain daukagu berriro ere irrikaz
Sagarrondotik ekimena. Sagardo-
aren eskutik sagar ondora... Sa-
garrondotikera!

SAGARDOAN JAKITUNA BAZARA ALDEA NABARITUKO DUZU



**GURUTZETA SAGARDOTEGIA,
BERRIKUNTZA ETA TRADIZIOA SAGARDO NATURELAN**

Sagardo Natural Orekatua, lasto kolore eta fruitu zaporezkoa, edozein jakirentzat egokia.

Gurutzeta Sagardotegian egina. Oialume Bidea. Astigarraga. Gipuzkoa.
Tel/Faxa: 943 55 22 42 • e-mail: gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com

